



## **BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK – UDA 2019 OINARRIZKO INFORMAZIOA**

### **Boluntariotza proiektuen helburua**

- Hirugarren Munduko pobretuen eta baztertuenganako irekitasuna ahalbideratzea. Eta horretarako, boluntariotza proiektu batean parte hartuz pertsona horiekin bizitzea eta haien bizimodua partekatzea.

### **Baldintzak**

- Adina: 21 urtetik gora, eta zenbait kasutan 25etik gora.
- Gizarte sentiberatasuna, kristau bizipena.
- Aurretik zenbait esperientzia bizi izana: aisialdiko taldeak, boluntariotza, laguntza-gelak ..., katekesia, kristau talde bateko partaidetza ... Horrelako edo antzeko esperientziak beharrezkoak dira, proiektuetan bizi eta egingo dena, nondik norakoak eta zergatiak ulertzeko.
- Taldearen eta tokiko elkartearen elkarre – eta otoitz –bizitzan parte hartzeko prest izatea.
- **Formazioa:** Informazioa – formazioa bideratzeko egingo diren bi topaketetan parte hartzea. Topaketa hauek San Asension (Errioxa) izango dira 2019ko otsailaren 23an eta maiatzaren 25ean.

### **Finantzaketa**

- Boluntarioaren kontu izango dira bidaiak eta egonaldiaren gastuen zati bat.
- Proyde-Proegaren kontu egonaldiaren beste zatia, formazioa eta aseguruak.

### **Ebaluazioa**

- Proiektuaren bukaeran parte hartu duen taldearen ebaluazioa eta boluntario bakoitzarena eskatuko da.

### **Ondorengo konpromisoa**

- Ikastetxeetako Proyde-Proegaren sentsibilizazio-kanpainetan parte hartzera gonbidatuak izango dira boluntarioak.